

KONTZERTUA & PROIEKZIOA CONCIERTO & PROYECCIÓN

19 Iraila
Septiembre
12:00h Velódromo



DOAKO SARRERAK*
ENTRADAS GRATUITAS **12-18** Iraila
Septiembre

INFO FESTIVAL
KURSAAL

9-20h

INFO FESTIVAL
OKENDO PLAZA

10-20h


DONOSTIA
TURISMO

L-S: 9-20h
D: 10-19h

* Kontzertu egunean sarrerarik balego, belodromoan jaso ahalko dira.

En caso de disponibilidad, se podrán retirar entradas el mismo día del concierto en el velódromo.

fundación  fundazioa


EUSKADIKO
ORKESTRA

Eusko Jaurlaritzako herri-baitzua
sociedad pública del Gobierno Vasco

 DONOSTIA ZINEMALDIA
FESTIVAL DE SAN SEBASTIAN
INTERNATIONAL FILM FESTIVAL

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa - Orquesta Sinfónica de Euskadi

Tel: 943 013 232 • Fax 943 30 83 24

azaldua@euskadikoorkestra.eus / ilarranaga@euskadikoorkestra.eus / www.euskadikoorkestra.eus

Zinema musika Belodromoan, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren eta Sgae Fundazioaren eskutik

Filmetako soinu banden kontzertua eta eszena proiektzioa

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak eta SGAE Fundazioak Zinemaldiaren baitan Euskadiko Orkestrak eskainiko duen filmetako soinu banden kontzertua aurkeztzen dute aurten ere. Aurreko alditan Orkestraren Miramongo egoitzan izan ostean, aurtengoan, berritasun modura, kontzertua **Belodromoan** izango da. Hitzordua, **irailaren 19 larunbatean eguerdiko 12etan. Sarrera doakoa da.**

Belodromora eramatearen aldeko apostuak dimentsio zabalago bat ematen dio zinema eta musika uztartzen dituen topaketa honi: batetik, edukiera nambarmen handitzen da, 2500 jarleku izateraino; bestetik, kokapen berri honek eskaintzen dituen aukera teknikoaren artean, nabarmentzekoa da 400m²ko pantaila. Gainera, **leku-aldaketa** honek kontzertua Zinemaldiko gune nagusienetarikoen baten programazioaren baitan kokatzen du.

Kontzertuaren egitarauak Alfonso de Vilallonga, Fernando Velázquez, Joan Valent, Pascal Gaigne eta Alberto Iglesiasen soinu banden zatien aukeraketa biltzen du; soinu bandak honako filmetarako sortutakoak dira: *Blancanieves* (Pablo Berger), *Zipi y Zape y el club de la canica* (Oskar Santos), *Las Brujas de Zugarramurdi* (Álex de la Iglesia), honetan Donostiako Orfeoiko hainbat kide ariko delarik; *Loreak* (Jon Garaño eta Jose Mari Goenaga), *Lasa eta Zabala* (Pablo Malo) eta Pedro Almodóvarren *Todo sobre mi madre*, *Hable con ella*, *La mala educación* eta *La piel que habito*. Horrezaz gain, kontzertuak irudizko osagai gehigarria izango du: Orkestrak **Roman Gottwalden gidaritzapean** zuzenean interpretatuko duen musika entzungai izango diren soinu banden oinarri diren filmeen eszenen aukeraketarekin sortutako muntaketaren proiektioarekin uztartuko da. Muntatze hau kontzerturako espreski sortu du Carlos Rodríguezek (Morgan Crea). Belodromoko eszenatokian bilduko dira gainera soinu banden egileetarikoz batzuk.

Euskadiko Orkestra Belodromoan berriz ere. Urte eta urteetan Euskadiko Orkestra Sinfonikoa modu ezberdinetan izan da Zinemaldian: 1998an Belodromoan bertan kontzertu bat eskaini zuen Lalo Schifrin, *Mission Impossible*-erako musikaren sortzailearen zuzendaritzapean. Bestalde, musikaz lagundu ditu *The crowd* (King Vidor), Carmelo Bernalaren musikaz, eta *Wings* (Zamecnik) filme mutuak eta Zinemaldirako zenbait sintonia ere grabatu du. Zinemaldiaren azken aldietan, berriz, Orkestrak Fernando Velázquezek *The Impossible* (Juan Antonio Bayona) luzemetrairako idatzitako soinu banda estreinatu zuen zuzenean; eta SGAE Fundazioarekin batera antolatutako kontzertuetan, besteak beste *Pájaros de Papel* (Emilio Aragón), *You're the One* y *Tiovivo c. 1950* (José Luis Garci), *Los crímenes de Oxford* (Álex de la Iglesia), *Frío sol de invierno* (Pablo Malo) o *Alatriste* (Agustín Díaz Yanes) pelikuletako musika interpretatu du. Halaber, *El mal ajeno* (Oskar Santos) eta *Ocho apellidos vascos* (Emilio Martínez Lázaro) filmetako soinu bandak grabatu ditu. Eta berriki *Aitaren Etxea*, ETBren fikziozko telesail berriaren soinu banda irartu du; telesail hau Zinemaldiaren baitan aurre estreinatuko da.

Roman Gottwald, konpositore, interpretatzaile eta zuzendariak lehenbiziko aldiz zuenduko du Euskadiko Orkestra. Soinu banden sortzaile eta zuzendari artistiko bezala ibilbide nabarmena eginga du dagoeneko. Esaterako, konpositore eta orkestratzaile jardun zuen *Blancanieves* filmerako soinu bandaren sorkuntzan; filmea zuzeneko musikaz estreinatu zen, bera zuzendari izanik, Bartzelonako Gran Teatre del Liceu antzokian. Azkenaldian EEBBetan eta Asian barrena aritu da Antonio Canalesen *Flamenco* ikuskizunean biolinista gisa.

Sarrera doakoa da eta beharrezkoa izango da aurrez gonbidapena jasotzea, irailaren 12tik 18ra, Zinemaldiak Elkargunean eta Okendo Plazan dituen informazio guneetan, 9:00etatik 20:00etara eta 10:00etatik 20:00etara, hurrenez hurren; eta baita Donostia Turismoa bulegoan, astelehenetik larunbatera 9:00etatik 20:00etara eta igandean, aldiz, 10:00etatik 19:00etara.

ZINEMA MUSIKA: KONTZERTUA & PROIEKZIOA

Irailaren 19 larunbata, 12:00etan. Donostiako Belodromoa

Alfonso de Vilallonga (ukelele, akordeoia eta pianoa)

Blancanieves (Pablo Berger)

Fernando Velázquez

Zipi y Zape y el club de la canica (Oskar Santos)

Joan Valent

Las Brujas de Zugarramurdi (Álex de la Iglesia) / Donostiako Orfeoiko kideen esku-hartzearekin

Pascal Gaigne

Loreak (Jon Garaño, Jose Mari Goenaga) / *Lasa eta Zabala* (Pablo Malo)

Alberto Iglesias

Suite "35mm" - *Todo sobre mi madre*, *Hable con ella*, *La mala educación*, *La piel que habito* (Pedro Almodóvar)

EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA; Roman Gottwald, zuzendaria

Alfonso de Vilallonga musikagile balioaniztuna da. Isabel Coixeten eskutik murgildu zen soinu-banden munduan; haren *Cosas que nunca te dije*, *A los que aman*, *Mi vida sin mí* eta *Ayer no termina nunca* filmeetarako musika sortu du. Bostongo Berklee College-en egin zuen musika doktoregoa. Besteak beste, lankide izan ditu halaber Jesús Mora (*Mi dulce*), Ramón de España (*Haz conmigo lo que quieras*), Manolo Matji (*Horas de luz*), Fernando León de Aranoa (*Princesas*), Brad Anderson (*Transsiberian*) eta Pablo Berger (*Blancanieves*); azken filme honetarako sortutako soinu bandarekin Jatorrizko Musika Onenari Goya Saria eskuratu zuen banda; berau izango da Euskadiko Orkestra Sinfonikoak interpretatuko dituenetariko bat. Info+ alfonsovilallonga.net

Fernando Velázquezek 30 soinu bandatik gora idatzi ditu pelikularako. Konpositore egokikorra - *Lope*, Andrucha Waddington-ena; *Agujeros en el cielo*, Pedro Mari Santosena; *Spanish movie*, Javier Ruiz Calderarena eta abar- eskarmentu handia du beldurrezko generoan: *Los ojos de Julia*, de Guillem Moralesena; *Mamá*, Andrés Muschiettirena; *Devil*, John Erick Dowdleena, edo *El orfanato*, Juan Antonio Bayonak zuzendua. Berriz ere Juan Antonio Bayonarekin lan egin zuen *Lo imposible* filmean; honen arrakastaren ostean, 2013an Oskar Santosen *Zipi y Zape y el club de la canica* filmerako soinu banda idatzi zuen; azken hau kontzertuan entzungai izango da. Azkenaldian, Emilio Martínez Lázareoren *Ocho apellidos vascos* luzemetrairako musika (Euskadiko Orkestrak grabatu zuena) eta Brett Ratnerren *Hércules* filmearen soinu banda idatzi ditu.

Joan Valentek 20 filme baino gehiegoren soinu bandak konposatu ditu 90eko hamarkadaren bukaeratik. Ordutik Álex de la Iglesia, Antonio Chavarrías, Agustí Villaronga, Sigfrid Monleón bezalako zuzendariekin egin du lan eta *¿Cuánto pesa su edificio*, *Sr. Foster?* dokumentalean eskuhartu du, besteak beste. Musika-ikasketei dagokionez, biolontxelo, piano, analisi, konposizio eta zuzendaritza ikasketak burutu zituen Palma de Mallorca, Bartzelona eta Los Angelesen. Irabazi dituen sarien artean, Musika Klasikoaren Interprete Onenari Musikaren Saria *Ínsula Poética* diskoagatik eta Tolosako (Frantzia) Espainiako cinema Jaialdian Jatorrizko Musika Onenari Saria. Iaz Alejandro González Iñárrituren Birdman pelikularen soinu bandako bi doinuren sorkuntzan esku hartu zuen. Info+ www.joanvalent.com

Pascal Gaignek soinu banden arloan ibilbide luzea egin du jada; horren erakusle dira berak idatzitako musika duten 85 luzemetrai, laburmetrai eta dokumentalak. Horien artean, Víctor Ericeren *El sol del membrillo*; Iciar Bollaínen *Flores de otro mundo* eta *Katmandú, un espejo en el cielo*; Gracia Querejetaren *7 mesas de billar francés*; Julio Médemen *La pelota vasca*; Jon Garaño eta Jose Mari Goenagaren *Loreak* eta *80 egunean* edo Pablo Maloren *Lasa eta Zabala*. Bere sorkuntzak hainbat alditan izan dira sarituak: Buenos Airesko Jaialdiko Urrezko Palma Salvador Garcíaren El otro barrio filnearako musikarengatik, Zinema Konpositoreen Europar Federakuntzak (FFACE) emandako Europar Soinu Banda Onenari Saria, Daniel Sánchez Arévaloren *Azul oscuro* casi negro filmearen miskari esker. Info+ www.pascalgaigne.com

Alberto Iglesiasek zinemarako soinu banden sorkuntzan lan eskerga egin du. Hollywoodeko Akademiaren Oscar sarietarako, Golden Globe Awards edo BAFTA (British Academy of Films and Television Arts) saridungai izendatua izan izanak eta, besteak beste, Espainiako Zinemaren Arte eta Zientzien Akademiaren 10 Goya Sari irabazi izanak 30 soinu bandatik gora biltzen dituen ibilbide emankorra bermatzen dute. Espainian Pedro Almodóvar, Julio Medem, Iciar Bollaín, Bigas Luna edo Carlos Saura zuzendariekin egin du lan. Nazioarte mailan, aldiz, John Malkovichen *Pasos de baile*, Oliver Stonen *Comandante*, Fernando Meirellesen *El jardinero fiel*, Marc Fosterren *Cometas en el cielo*, Tomas Alfredsonen *El topo* eta Steven Soderbergen *Che* filmetarako musika idatzi du, besteak beste. Info+ albertoiglesias.net

Kontzertuaren trailerra eskuratzeko:

<http://vimeo.com/137854124>

pasahitza: zinemaldia

fundación  fundazioa



Música de cine en el Velódromo, con la Orquesta Sinfónica de Euskadi y la Fundación Sgae

BSO-s en concierto y proyección de escenas de cine

La Orquesta Sinfónica de Euskadi y la Fundación SGAE presentan un año más el concierto de música de cine que la Orquesta de Euskadi ofrece dentro de la programación del Festival de San Sebastián. Este año, y como novedad, el concierto se traslada al Velódromo, tras haber ha tenido como escenario la sede de la Orquesta en Miramón en las tres últimas ediciones. **La cita, el sábado 19 de septiembre a las 12 del mediodía. La entrada es gratuita.**

La apuesta por trasladarlo al Velódromo supone dar una mayor dimensión a este encuentro de música de cine: tanto en lo que respecta al aforo, que se amplía hasta las 2500 localidades, como en cuanto a las posibilidades técnicas que ofrece este nuevo emplazamiento, que cuenta con una pantalla de 400 m2. Y también porque supone la incorporación del concierto a la programación de uno de los espacios más populares del Festival.

El programa del concierto reúne una selección de fragmentos de las bandas sonoras compuestas por **Alfonso de Vilallonga, Fernando Velázquez, Joan Valent, Pascal Gaigne y Alberto Iglesias** para las películas *Blancanieves* de Pablo Berger; *Zipi y Zape y el club de la canica*, de Oskar Santos; *Las Brujas de Zugarramurdi*, de Álex de la Iglesia (con la participación de miembros del Orfeón Donostiarra); *Loreak*, de Jon Garaño y Jose Mari Goenaga; *Lasa eta Zabala*, de Pablo Malo; y para los largometrajes de Pedro Almodóvar *Todo sobre mi madre*, *Hable con ella*, *La mala educación* y *La piel que habito*. Además, el concierto tendrá un elemento visual añadido: la música que interpretará en directo la Orquesta, **bajo la dirección de Roman Gottwald**, se engarza con la **proyección de un montaje de escenas de las películas** cuyas bandas sonoras se interpretan y que ha sido creado específicamente para este concierto por Carlos Rodríguez de Morgan Crea. Por el escenario del Velódromo pasarán además varios de los compositores.

La Orquesta de Euskadi regresa al Velódromo. A lo largo de los años, la Orquesta Sinfónica de Euskadi ha estado presente en el Festival de San Sebastián de diversas maneras: en 1998 ofreció un concierto en el Velódromo bajo la dirección del argentino Lalo Schifrin, autor de la banda sonora de *Misión Imposible*, además, ha acompañado con música las películas mudas *The crowd* (King Vidor), con música de Carmelo Bernaola, y *Wings* (Zamecnik) y ha grabado varias sintonías para el Festival. Ya en las últimas ediciones, la Orquesta ha protagonizado el estreno en vivo de la banda sonora de *Lo Imposible*, de Juan Antonio Bayona, firmada por Fernando Velázquez y ha organizado junto a la Fundación SGAE conciertos en los que ha interpretado la música de *Pájaros de Papel* (Emilio Aragón), *You're the One y Tiovivo c. 1950* (José Luis Garcí), *Los crímenes de Oxford* (Álex de la Iglesia), *Frío sol de invierno* (Pablo Malo) o *Alatriste* (Agustín Díaz Yanes), entre otros largometrajes. También ha grabado las bandas sonoras *El mal ajeno*, de Oskar Santos y *Ocho apellidos vascos*, de Emilio Martínez Lázaro. Recientemente ha registrado la música de "Aitaren Etxea", nueva serie de ficción de ETB, que se preestrenará en el marco del Festival.

Roman Gottwald, compositor, intérprete y director, dirige por primera vez a la Orquesta de Euskadi. Con una importante trayectoria como creador de bandas sonoras y director musical, participó como compositor y orquestador en la creación de la banda sonora de *Blancanieves* que se estrenó con música en directo bajo su dirección en el Gran Teatro del Liceu (Barcelona). Últimamente ha realizado una gira con Antonio Canales por EEUU y Asia como violinista de *Flamenco*.

La entrada es gratuita y será preciso recoger la invitación correspondiente del 12 al 18 de septiembre en los puntos de información del Festival de San Sebastián en el Centro Kursaal y en Okendo Plaza, en horario de 9 a 20 horas y de 10 a 20 horas, respectivamente; así como en la Oficina de Donostia Turismo, de lunes a sábado de 9 a 20 horas y el domingo, de 10 a 19 horas.

MÚSICA DE CINE: CONCIERTO & PROYECCIÓN

Sábado 19 de septiembre, 12:00 horas. Velódromo de San Sebastián

Alfonso de Vilallonga (ukelele, acordeón y piano)

Blancanieves (Pablo Berger)

Fernando Velázquez

Zipi y Zape y el club de la canica (Oskar Santos)

Joan Valent

Las Brujas de Zugarramurdi (Álex de la Iglesia) /Con la participación de miembros del Orfeón Donostiarra

Pascal Gaigne

Loreak (Jon Garaño, Jose Mari Goenaga) / *Lasa eta Zabala* (Pablo Malo)

Alberto Iglesias

Suite "35mm" - *Todo sobre mi madre*, *Hable con ella*, *La mala educación*, *La piel que habito* (Pedro Almodóvar)

ORQUESTA SINFÓNICA DE EUSKADI; Roman Gottwald, director

Alfonso de Vilallonga es un autor polifacético que se inició en el mundo de las bandas sonoras de la mano de Isabel Coixet, para quien ha compuesto la música de *Cosas que nunca te dije*, *A los que aman*, *Mi vida sin mí* y *Ayer no termina nunca*. Doctorado en Música por el Berklee College of Music de Boston, también ha trabajado con Jesús Mora (*Mi dulce*), Ramón de España (*Haz conmigo lo que quieras*), Manolo Matji (*Horas de luz*), Fernando León de Aranoa (*Princesas*), Brad Anderson (*Transsiberian*) y Pablo Berger (*Blancanieves*); banda sonora esta última con la que obtuvo el Goya a la Mejor Música Original y que se encuentra entre las obras que interpretará la Orquesta Sinfónica de Euskadi. + info en alfonsovilallonga.net

Fernando Velázquez es autor de más de 30 bandas sonoras de películas. Compositor versátil -*Lope*, de Andrucha Waddington; *Agujeros en el cielo*, de Pedro Mari Santos; *Spanish movie*, de Javier Ruiz Caldera...- cuenta con una amplia experiencia en el género de terror: *Los ojos de Julia*, de Guillem Morales; *Mamá*, de Andrés Muschietti; *Devil*, de John Erick Dowdle o *El orfanato*, de Juan Antonio Bayona. Tras el éxito del largometraje *Lo imposible*, donde volvió a trabajar con Juan Antonio Bayona, compuso en 2013 la banda sonora de *Zipi y Zape y el club de la canica*, de Oskar Santos, que forma parte del programa del concierto. Recientemente ha compuesto la música de *Ocho apellidos vascos*, de Emilio Martínez Lázaro (banda sonora grabada por la Orquesta de Euskadi), y de *Hércules*, de Brett Ratner.

Joan Valent ha compuesto la banda sonora de más de 20 títulos desde finales de los años 90. Durante este tiempo ha trabajado con directores como Álex de la Iglesia, Antonio Chavarrías, Agustí Villaronga, Sigfrid Monleón o en el documental *¿Cuánto pesa su edificio, Sr. Foster?* Formado musicalmente con estudios de violonchelo, piano, análisis, composición y dirección en Palma de Mallorca, Barcelona y Los Ángeles, cuenta, entre otros galardones, con un Premio de la Música al Mejor Intérprete de Música Clásica, por su disco *Ínsula Poética*, y con el Premio a la Mejor Música Original, por la película *La Caja*, de Juan Carlos Falcón, en el Festival de Cine de España de Toulouse. El pasado año participó en la composición de dos temas de la banda sonora de la película *Birdman*, de Alejandro González Iñárritu. + info en www.joanvalent.com

Pascal Gaigne ha desarrollado una intensa carrera en el campo de las bandas sonoras, con más de 85 largometrajes, cortos y documentales. Entre ellas, las compuestas para *El sol del membrillo*, de Víctor Erice; *Flores de otro mundo* y *Katmandú, un espejo en el cielo*, de Iciar Bollaín; *7 mesas de billar francés*, de Gracia Querejeta, *La pelota vasca*, de Julio Méndem, *Loreak* y *80 egunean*, de Jon Garaño y Jose Mari Goenaga, o *Lasa eta Zabala*, de Pablo Malo. Sus composiciones han sido reconocidas en diversas ocasiones, destacando la Palma de oro en el Festival de Buenos Aires por *El otro barrio*, de Salvador García; y el premio de Mejor Banda Sonora Europea por *Azul oscuro casi negro*, de Daniel Sánchez Arévalo, otorgado por la Federación Europea de Asociaciones de Compositores de Cine (FFACE). + info en www.pascalgaigne.com

Alberto Iglesias cuenta con una larga trayectoria en la creación de bandas sonoras para cine. Sus nominaciones al Oscar de la Academia de Hollywood, a los Globos de Oro y al BAFTA (British Academy of Films and Television Arts) unidos a los 10 Premios Goya de la Academia de las Artes y Ciencias Cinematográficas de España, entre otros galardones, avalan una carrera en la que ha compuesto más de 30 bandas sonoras. Ha trabajado con directores españoles de la talla de Pedro Almodóvar, Julio Medem, Iciar Bollaín, Bigas Luna o Carlos Saura. A nivel internacional ha compuesto las bandas sonoras de *Pasos de baile*, de John Malkovich; *Comandante*, de Oliver Stone; *El jardinero fiel*, de Fernando Meirelles; *Cometas en el cielo*, de Marc Foster, *El topo*, de Tomas Alfredson o *Che*, de Steven Soderberg, por citar algunas de sus obras. + info en albertoiglesias.net

Para obtener el tráiler del concierto:

<http://vimeo.com/137854124>

contraseña: zinemaldia

SGAE Fundazioa Zinemaldian

Donostiako Zinemaldiarekin eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin antolatutako musika emanaldi hau irailaren 19an gauzatuko da eta SGAE Fundazioak Zinemaldiaren 63. edizioaren baitan aurreikusi dituen ekimenen artean bat dugu. Nazioarteko zinemagintzaren ospakizun donostiarra irailaren 18tik 26ra ospatuko da, helburua, kasu zehatz honetan, gazteleraz egiten diren filmak proiektatzea, zabaltzea eta sustatzea; bide batez, hurbiltzerik ez duten zinema maitaleri ere aukera ezberdin bat eskeintzea.

Era honetan, aurten hirugarrenez, Made in Spain deritzon atala antolatu da, non urtean estreinatu diren Estatu mailako (edo Estatuko ekoizpeneko) hainbat filma ematen diren, guztiak, Zinemaldiaren nazioarteko euskarri ezinhobetik pasatzen direnak eta lehen mailakoak. Denera hamaika pelikulaz ari gara.

Honez gain, SGAE Fundazioak berak izen bereko zikloa antolatzen du Madrilen, Berlanga Aretoan hain zuzen ere, irailaren 21etik 27ra (Andres Mellado 53 kalean eta 3 euroren truke). Abagune honetan azken urteotako Zinemaldietan parte hartzerik izan duten film bilduma emango da.

La Fundación SGAE en el Festival de San Sebastián

El concierto organizado junto con la Orquesta de Euskadi y el Festival de San Sebastián, que tendrá lugar el próximo 19 de septiembre, forma parte del conjunto de actividades programadas por la Fundación SGAE en la 63 edición del Festival de San Sebastián, que se celebra del 18 al 26 de septiembre. El objetivo de la entidad es promocionar el cine español y latinoamericano, ampliar la proyección del festival y acercar la iniciativa a los espectadores que no puedan acudir a la cita en la capital guipuzcoana.

De esta manera, un año más, la entidad coorganiza la sección **Made in Spain**, que integra una selección de películas, muestra del panorama del cine español del año, con producciones estrenadas o no en nuestro país, a las que el Festival ofrece una excelente plataforma para su difusión internacional. En total, son once los filmes que componen la sección.

Además, la Fundación SGAE organiza el ciclo **Made in Spain del 21 al 27 de septiembre**, la **Sala Berlanga** de Madrid (C/Andrés Mellado, 53. Precio: 3 euros) proyectará el ciclo **Made in Spain**, con una selección de las obras que han participado en esta sección en los últimos años.